

ERASMUS+ MUGIKORTASUN HITZARMENAK

1 Proposamenaren ekimena honako hauei dagokie: atzerriko unibertsitate batekin truke harremanak sustatu nahi dituzten irakasle edo ikertzaileei, administrazio eta zerbitzuetako langileei eta ikasleei edo atzerriko unibertsitateari berari.

2 **Sustatzailea NUPeko langilea bada**, bere interesa jakinaraziko dio Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nazioarteko Harremanetarako Atalari (convenios.internacional@unavarra.es) bai eta hitzarmenaren datu akademikoak ere. Besteak beste, hauek: jakintza arloa, ikasketa maila, ikasle kopurua, mugikortasunaren iraupena, irakasle kopurua eta mugikortasunerako aldia.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nazioarteko Harremanetarako Ataletik (convenios.internacional@unavarra.es) jakinaraziko zaie Nazioarteko Harremanetako Zuzendaritzaordeei edo Dekanotzaordeei Hitzarmen hori egiteko interesa, eta ontzat eman ondoren, hitzarmena tramitatuko da atzerriko unibertsitatearekin.

Sustatzailea atzerriko unibertsitatea bada, Hitzarmenean jasotako jakintza arloari dagokion Nazioarteko Harremanetako dekanordeak edo zuzendariordeak ontzat eman ondoren, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak (Nazioarteko Hitzarmenak) erabakia tramitatuko du, eta bi hezkuntza erakundeetan eskumena duten arduradunek sinatuko dute.